BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSA OHARRA**

**Zatizko zuzenketa-eskeen eztabaidea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean**

# Onartu egin dira Lehendakaritza, Herri Lan eta Garraioak, Nekazaritza eta Gizarte Ekintza Sailen aurrekontuen Erizpenak

- **Bizkaiko aurrekontuei buruzko azken Osokoan eztabaidatuko dan testuan sartuta agertuko dira Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dituan 6 zuzenketa-eske. Gaurkoan Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak izandako lau bileretan guztira Taldeek aurkeztutako 74 zuzenketa-eske eztabaidatu dira**

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 30ean

Bizkaiko 2013. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko eztabaideak aurrera egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, eta gaur Lehendakaritza, Herri Lan eta Garraioak, Nekazaritza eta Gizarte Ekintza Sailen aurrekontuak dirala-ta aurkeztutako zatizko zuzenketa-eskeez eztabaidatu da. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean gauzatu da eztabaidea, eta Sail horreei buruzko lau Erizpenak onartu dira Euzko Abertzaleak Taldearen (PNV) ordezkarien aldeko botoagaz eta Bizkaiko Talde Popularraren (PP) ordezkarien abstentzinoagaz. Bildu Taldeko eta Socialistas Vascos Taldeko ordezkariek aurkako botoa emon dabe. Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako 6 zuzenketa-eskeren edukina sarturik egongo da Erizpenaren testuan.

Batzordearen lehen batzarra goizeko 9:30etan hasi da, Lehendakaritza Sailari aurkeztutako zuzenketa-eskeen eztabaideagaz. Batzordean zehar izandako eztabaidearen ondorenez, PP alderdiak aurkeztutako zuzenketa-eske bat onartu da, UNED finantzatzeko 2013. urterako 120.000 euro eskatzen zituana hain zuzen. Enparauko zuzenketa-eskeak ez dira onartu.

Hurrengo batzorde-batzarrean, Herri Lan eta Garraioetako Sailari aurkeztutako zuzenketa-eskeen eztabaidea egin da. Guztira 16 zuzenketa-eske egozan Sail horri aurkezturik, baina azkenean bik baino ez dabe aurrera egin, biak PPrenak: batean 100.000 euro jarten dira Barakaldoko Lutxanako oinezkoentzako tuneletan bideo-zaintza sistemea jarteko, eta bestean, 200.000 euro gehitzen dira Santo Domingoganan oinezkoentzako pasabidea jarteko. Zuzenketa-eske horren arabera be, 2014-2015 aldian 1,6 milioiko beste diruizendapen bat jarteko konpromisoa be hartu da.

Goizeko eztabaidak Nekazaritza Sailari aurkeztutako zatizko zuzenketa-eskeakaz amaitu da. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak ez ditu onartu Sail horri aurkeztutako lau zuzenketa-eskeak, bata PSErena eta beste hirurak Bildurenak.

Batzordea arratsaldean be bildu da, Gizarte Ekintza Sailari Taldeek aurkeztu deutsezan 42 zuzenketa-eskeez eztabaidatzeko. Batzordeak PPren hiru zuzenketa-eske onartu ditu aurkako boto barik. Zuzenketa guztiak ziran Mendekotasunaren prestazino eta dirulaguntzei buruzkoak. Onartutako zuzenketetariko batek hiru milioi euroko diruizendapena jarten dau Aldundiak

martxan jarri dagian 1 mailako mendekotasundunentzako laguntzetarako, Mendekotasunari buruzko Legean xedatutakoaren arabera. Onartutako bigarren zuzenketearen arabera, 65.000 euro gehitu dira gaigabeziadunentzako jarduera zentroetan plaza gehiago eskaintzeko foru laguntzetarako. Onartutako hirugarrenarena arabera, 50.000 euro gehitzen dira nagusientzako laguntza eta soroslaritza psikologiko eta juridikoa emoteko egitarau baterako. Bildu eta Socialistas Vascos Taldeen zuzenketa-eskeak ez dira onartu.

Bihar, eguenean, enparauko Sailei buruz aurkeztutako zatizko zuzenketa-eskeen eztabaideak aurrera egingo dau Batzar Nagusiek Bilbon daben egoitzan (Hurtado de Amezaga 6, 6. solairua). Batzarrak goizeko 9:30etan hasiko dira, eta lehenengoa Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontuei aurkeztutako 16 zuzenketa-eskeei buruzkoa izango da: goizeko 11:00etan hasiko da Ingurumen Sailari aurkeztutako zuzenketa-eskeena (8 zuzenketa-eske); eguerdiko 13:00etan Kultura Sailari aurkeztutakoena; eta arrastiko 16:00etan izango da azken batzarra, Ogasun eta Finantzetako Sailari (7) eta Testu Artikulatuari aurkeztutakoakaz (8).

Bizkaiko Aurrekontuan behin-betikotasunez onartzeko izapidea Gernikako Osoko Batzarrean amaituko da, Taldeek Ekonomia eta Ogasuneko Batzorde bilera horreetan Osokorako gordetako zuzenketa-eskeen eztabaideagaz.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

**Debate de las enmiendas parciales en la Comisión de Economía y Hacienda**

# Aprobados los dictámenes presupuestarios de los departamentos de Presidencia, Obras Públicas y Transportes, Agricultura y Acción Social

- **El documento final que se trasladará al último pleno de los Presupuestos de Bizkaia, incorporará 6 enmiendas del Grupo Popular Vizcaíno de un total de 74 enmiendas debatidas hoy en las cuatro comisiones de Economía y Hacienda que se han celebrado en las Juntas Generales de Bizkaia.**

Bilbao, a 30 de enero de 2013.

El trámite parlamentario del Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2013 ha continuado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia con el debate de las enmiendas parciales presentadas a los departamentos forales de Presidencia, Obras Públicas y Transportes, Agricultura y Acción Social. En el seno de la Comisión de Economía y Hacienda, las Juntas Generales han aprobado los cuatro dictámenes que se presentaban con el voto favorable del Grupo Nacionalistas Vascos (PNV), la abstención del Grupo Popular Vizcaíno (PP) y el voto contrario de los representantes de Bildu y de los Socialistas Vascos (PSE). El texto definitivo incorporará 6 enmiendas del Grupo Popular Vizcaíno, las únicas aprobadas hoy de un total de 74 que iban a comisión. Todas las enmiendas de Bildu y de los socialistas han sido rechazadas.

En la primera sesión matinal, se han debatido y votado las enmiendas parciales presentadas por los grupos al proyecto de Cuentas públicas del departamento de Presidencia. El dictamen final incorporará una enmienda del PP que servirá para financiar con 120.000 euros a la UNED (Universidad de Educación a Distancia). El resto de enmiendas incluidas a las cuentas del departamento que dirige Unai Rementería, quien por primera vez asistía a una comisión del parlamento vizcaíno como diputado foral, han sido rechazadas.

En la comisión posterior, en la que se trataban las enmiendas al presupuesto del departamento de Obras Públicas y Transportes, los grupos junteros se han pronunciado sobre un total de 16 enmiendas. Tras las correspondientes votaciones, solamente dos han pasado el "corte". El dictamen final incorporará las dos enmiendas presentadas por el PP a través de las cuáles se asigna una partida económica de 100.000 euros para la instalación de un sistema de videovigilancia en los túneles peatonales de Lutxana en Barakaldo, y se incluye otra partida de 200.000 euros para la construcción de una pasarela peatonal en la carretera del Alto de Santo Domingo. Esta última enmienda incorpora el compromiso de reservar otra asignación de 1,6 millones de euros a repartir entre los años 2014 y 2015 para este cometido.

El debate matinal ha terminado con las enmiendas parciales presentadas a las cuentas del Departamento de Agricultura. La Comisión de Economía y Hacienda ha rechazado las 4 enmiendas presentadas por los grupos junteros, una del PSE y otras tres de Bildu.

SESIÓN VESPERTINA

Las sesiones han proseguido por la tarde con el debate de las 42 aportaciones de los grupos junteros realizadas para modificar algún programa presupuestario del área foral de Acción Social. La cámara vizcaína ha aprobado tres enmiendas del PP sin ningún voto contrario, incluidas todas en el programa de Prestaciones y Subvenciones para la Dependencia. Una de las enmiendas aprobadas, la de mayor cuantía hasta el momento, establece un partida económica de 3 millones de euros para que la Diputación ponga en marcha un sistema de ayudas para las personas dependientes de Grado I que recoge la Ley de Dependencia.

La segunda enmienda aceptada establece un incremento de 65.000 euros en las ayudas forales destinadas a ofrecer más plazas en centros ocupacionales a personas discapacitadas. Y la tercera enmienda fija un aportación extra de 50.000 euros para la creación de un programa de apoyo y asesoramiento piscológico y jurídico para personas mayores. Las enmiendas presentadas por Bildu y PSE han sido rechazadas todas.

MAÑANA, JUEVES, OTRAS CUATRO COMISIONES

Mañana, jueves, proseguirán las comisiones en la sede bilbaína de las Juntas Generales (C/ Hurtado de Amezaga, 6 – Planta 6ª). A las 9.30 horas se debatirán las 16 enmiendas que van a comisión referidas a las cuentas del departamento de Promoción Económica; a las 11 horas, le tocará el turno a las de Medio Ambiente (8 enmiendas); a las 13 horas, Cultura (12 enmiendas); y ya por la tarde, a las 16 horas, el turno será para la comisión que debe tratar las enmiendas parciales presentadas al departamento de Hacienda y Finanzas (7) y al Texto Articulado (8).

El trámite parlamentario para aprobar definitivamente los Presupuestos de Bizkaia finalizaría con un pleno en Gernika en donde se analizarán las enmiendas parciales que reserven los grupos junteros en estas comisiones de Economía y Hacienda.